

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRIA-DULANTZIKO UDALA

Ur-hornidura eta -saneamendurako zerbitzuak, eta hiri-hondakin solidoak biltzeko, tratatzeko eta desagerrarazteko zerbitzua emateagatik tasak arautzen dituzten zerga-ordenantzen behin behitiko onarpena

Udalbatzak, 2020ko abenduaren 2an egindako ohiko bilkuran, honako ordenantza fiskal hauen aldaketari hasierako onespena ematea erabaki zuen:

- Ur-hornidura eta -saneamenduko zerbitzuak emateagatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.
- Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateagatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Agiriak jendaurrean egon diren bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartutzat jotzen dira. Hona hemen:

Ur hornidura eta saneamendu zerbitzua emateagatik kobratubeharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Dulantziko Udalak, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituenak, 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, tasak ezarri eta eskatzen ditu ordenantza honetan, zerbitzu publikoak emateagatik edo ondoko jarduera hauek egiteagatik: I. epigrafea. Ur hornidura eta saneamendu zerbitzua.

Ordenantza hau Dulantziko udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

2. artikulua

1. Zerga gaia da zerbitzu publikoak ematea edo udalaren eskumeneko administrazio jarduerak egitea, baldin eta subjektu pasiboei badagozkie edo batez ere haiei eragin edo onura ematen badiete, 1/1989 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Administrazio jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragingo dio, edo hari egongo zaio, baldin eta hark eragin badu zuzenean edo zeharka, berak egindakoagatik edo ez egindakoagatik, eta horren ondorioz Dulantziko Udalak ofizios jarduerak egin edo zerbitzuak eman behar baditu, segurtasun zein osasun arrazoiengatik, herritarrak zerbaitez hornitu behar dituelako, edo hirigintza arloko zein beste edozein arlotako arrazoi bada tarteko.

3. Zerbitzuak emateagatik kobratu beharreko tasak ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.

III. Subjektu pasiboak

3. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzua emateko eskatzen badute edo haren onuraz gozatzen badute edo hark eragiten badie.

2. Etxebizitzen edo lokalen erabiltzaileei onura eman edo eragin egiten dieten zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ezarritako tasak ordaintzeko, ondasun higiezin horien jabeak izango dira zergadunaren ordezkioak, eta haiek ordainarazi ahal izango dizkiete onuradunei kuotak, hala badagokio.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

4. artikulua

Salbuespenak, murrizketak, hobariak eta beste zerga onura batzuk onartzerakoan, bete egin beharko da ordenantza honetan xedaturikoa.

V. Zerga oinarria

5. artikulua

Dena delako zerbitzu edo jardueraren kostu erreala edo aurreikusitakoa da zerga oinarria, kontuan hartuta zer zuzeneko gastuk edo zeharkakok osatzen duten zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa; baita zer finantza gastu egon den, higiezinetatik zer amortizatu den, eta zer gastu orokor egin den ere, kontribuzio berezien bidez ordaindu ez direnak.

VI. Kuota

6. artikulua

1. Zerga kuota zehazteko, ordenantza honen epigrafeak jasoriko tarifetatik, egokitzen dena aplikatuko da, betiere hura aplikatzeko arauen arabera.

VII. Sortzapena eta zergaldia

7. artikulua

Tasa noiz sortzen den:

- a) zerbitzua ematen edo jarduera egiten hastearekin batera; nolana ere, lanari ekin aurretik zenbateko osoa edo zati bat jartzeko eska daiteke.
- b) jarduera edo espedientea abiarazteko eskaera aurkezten denean, zeina ezin izango baita egin edo izapidetu ordaindu beharrekoa ordaindu arte.

VIII. Likidazioa eta dirua sartzea

8. artikulua

Dulantziko udal administrazioak egingo ditu kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioak, kasuan kasuko tarifetan jasoriko ordainarazpen bakoitzaren arau berezien arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahal izango da.

XI. Tasen kudeaketa

9. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, dirubilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioaren eta kasuan kasu ezarri beharreko zehapenak zehaztearen gaineko guztian, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, eta indarreko lege xedapenek ezarritakoa aplikatuko da.

Azken xedapena

ALHAOn behin betiko argitaratzen denean hasiko da aplikatzen zerga ordenantza hau, eta indarrean jarraituko du harik eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

I. epigrafea. Ur hornidura eta saneamendu zerbitzua ematea

I. Ordainarazpenaren gaia

1. artikulua

Bai ur hornidura zerbitzua, bai estolderia eta hondakin urak tratatzeko udal sarea erabiltzeko eskubidea izatea da tasa honen gaia, hartunea instalatzean eta erabiltzaile edo abonatuaren erregistroan egindako inskripzio bakoitzeko sortzen baita eskubide hori.

II. Subjektu pasiboak

2. artikulua

1. Ur hornidura eta saneamendu zerbitzua emateagatik kobratu beharreko tasen subjektu pasiboak dira, zergadunak diren aldetik, Arabako zergen Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta ordenantza honetan araututako udal zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte eta haien onuraz gozatzen badute edo eragin egiten badiete.

2. Administrazio jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragingo dio, edo hari egingo zaio, baldin eta hark eragin badu zuzenean edo zeharka, berak egindakoagatik edo ez egindakoagatik, eta horren ondorioz udalak ofizioz jarduerak egin edo zerbitzuak eman behar baditu.

3. Lokalen erabiltzaileei onura ematen dieten zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ezarritako tasak ordaintzeko, ondasun horien jabeak izango dira zergadunaren ordezkioak, eta haiek ordainarazi ahal izango dizkiete onuradunei kuotak, hala badagokio.

3. artikulua

Udalak nahitaez eman behar du ur hornidura eta saneamendu zerbitzua, eta tasa sorrarazi egingo da, nahiz eta interesdunek ez eragin zerbitzu horien erabilera.

III. Zerga oinarria eta salbuespenak

4. artikulua

Zerga oinarria ordenantza honetako xedapen nagusietako 4. artikuluan jasotzen dena izango da.

5. artikulua

Tasa honetatik salbuetsita daude Dulantziko Udalarenak diren higiezinak, bere helburuak betetzeko erabiltzen badira.

2020ko bigarren hiruhilekoko ordainketatik salbuetsita daude COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10.artikuluaren 1. ataleko salbuespenen barruan ez dauden dendak, ostalaritza-establezimenduak eta zerbitzuak, larrialdi-zerbitzua besterik ez duten establezimenduak izan ezik. Horrez gain, ostalaritza-establezimenduak 2020ko laugarren hiruhilekoko ordainketatik ere salbuetsita egongo dira.

IV. Zerga kuota

6. artikulua

6.1. Zerbitzuaren kuota.

Hurrengo diru kopuruak ordaindu beharko dira, hiru hilean behin, ur hornidura eta hondakin uren saneamendu (estolderia eta arazketa) zerbitzua erabiltzeko eskubidea izateagatik (hartunea instalatzean eta erabiltzaile edo abonatuaren erregistroan egindako inskripzio bakoitzeko sortzen

baita eskubide hori) eta hiru hilean behin kontagailuak irakurtzeagatik, kontsumitutako urarengatik ordaindu beharko den kuotaz gainera:

ERABILERA MOTA	HORNIDURA ZERBITZUA	SANEAMENDU ZERBITZUA
Etxeko erabilera	6,00 euro	4,50 euro
Bestelako erabilerak eta komunitate erabilerak	10,17 euro	5,56 euro
Merkataritza eta industria erabilerak eta gainerako ekonomia jarduerak, 15 mm arteko kontagailua	10,17 euro	7,68 euro
Merkataritza eta industria erabilerak eta gainerako ekonomia jarduerak, 25 mm arteko kontagailua	21,39 euro	10,06 euro
Merkataritza eta industria erabilerak eta gainerako ekonomia jarduerak, 30 eta 50 mm arteko kontagailua	53,47 euro	25,15 euro
Merkataritza eta industria erabilerak eta gainerako ekonomia jarduerak, 50 mm-tik gorako kontagailua	106,95 euro	50,29 euro

6.2. Ur kontsumoa.

Kontsumitutako urari dagokionean, erabilitako uraren arabera ordaindu beharko da, m³ bakoitzeko ezarritako tarifa honen arabera:

a) Etxeko erabilerak:

	HORNIDURA ZERBITZUA	SANEAMENDU ZERBITZUA
10 m ³ -raino	0,00 euro	0,00 euro
10 - 20 m ³ arteko gaindikina	0,38 euro	0,38 euro
20 - 40 m ³ arteko gaindikina	0,46 euro	0,38 euro
40 - 50 m ³ arteko gaindikina	0,63 euro	0,41 euro
50 - 70 m ³ arteko gaindikina	0,89 euro	0,57 euro
70 - 90 m ³ arteko gaindikina	0,97 euro	0,57 euro
90 m ³ baino gehiagoko gaindikina	1,06 euro	0,57 euro

Legez onartuta dagoen familia ugari baten ohiko bizilekuari dagokion etxeko kontsumoa 50 - 70 m³ artean badago, likidatzeko orduan 40 - 50 m³ arteko tartearen tarifa aplikatuko zaio.

Hobari horretaz gozatzeko, interesdunek eskatu egin beharko dute, eta egiaztatu betetzen dutela eskatutako baldintza.

b) Bestelako erabilerak (bizitegi, merkataritza edo industria erabilera ez duten lokalak eta auzokide erkidegoetako garbiketako ura barne hartzen dituzte):

	HORNIDURA ZERBITZUA	SANEAMENDU ZERBITZUA
10 m ³ -raino	0,00 euro	0,00 euro
10 - 20 m ³ arteko gaindikina	0,63 euro	0,41 euro
20 - 60 m ³ arteko gaindikina	0,89 euro	0,57 euro
60 - 100 m ³ arteko gaindikina	0,97 euro	0,63 euro
100 m ³ -tik gorako gaindikina	1,06 euro	0,75 euro

c) Merkataritza eta industria erabilerak eta gainerako ekonomia jarduerak:

	HORNIDURA ZERBITZUA	SANEAMENDU ZERBITZUA
10 m ³ -raino	0,00 euro	0,00 euro
10 - 30 m ³ arteko gaindikina	0,63 euro	0,75 euro
30 - 50 m ³ arteko gaindikina	0,75 euro	0,75 euro
50 - 70 m ³ arteko gaindikina	0,89 euro	0,75 euro
70 - 90 m ³ arteko gaindikina	0,97 euro	0,75 euro
90 - 200 m ³ arteko gaindikina	1,06 euro	0,75 euro
200 - 1.000 m ³ arteko gaindikina	1,21 euro	0,75 euro
1.000 m ³ -tik gorako gaindikina	1,41 euro	0,75 euro

d) Bizitegi izaerako erabilera komunitarioak:

Etxeko kontsumo edo erabilerarako ur beroaren zerbitzua edota zerbitzu osagarriak, komunitate kontagailuarekin:

	HORNIDURA ZERBITZUA	SANEAMENDU ZERBITZUA
Kontsumo orotan, m ³ bakoitzeko hauxe ordainduko da	0,46 euro	0,38 euro

6.3. Kontagailuak mantendu eta berritzeagatik ordaindu beharreko kuota:

Hiru hilez behin honako kuota kobratuko da, udalaren kontagailuak mantendu eta berritzeagatik:

DIAMETROA	MANTENTZE KUOTA
13 mm-ko kontagailua	2,60 euro
15 mm-ko kontagailua	2,60 euro
20 mm-ko kontagailua	3,07 euro
25 mm-ko kontagailua	4,96 euro
30 mm-ko kontagailua	5,38 euro
40 mm-ko kontagailua	8,15 euro
50 - 100 mm-ko kontagailua	29,50 euro
100 mm-tik gorako kontagailua	72,50 euro

Kontagailuak 10 urtez behin berrituko dira.

6.4. Udalaren ur sarearekin lotzeko eskubideak, kontagailuaren eta errakoreen kostua barne, ur hornidurarik ez daukaten eraikinetan hartune berriak egiten baldin badira.

a) Etxeko erabilerak:

Hartune eskubidea, hornidura eta saneamendua, kontagailua eta hori instalatzea barne (kostuaren barruan instalazio lanak, kontagailua eta errakoreak sartzeko dira): 612 euro.

b) Beste erabilera batzuk:

Hartune eskubidea, hornidura eta saneamendua, kontagailua eta hori instalatzea barne (kostuaren barruan instalazio lanak, kontagailua eta errakoreak sartzeko dira): 612 euro.

c) Industria erabilerak:

Gehienez 25 mm-ko diametroko kontagailuen hartune eskubidea (kostuaren barruan instalazio lanak, kontagailua eta errakoreak sartzeko dira): 750 euro.

25 eta 50 mm arteko diametroa duten kontagailuen hartune eskubidea (hartune eskubidea baino ez da sartzeko eta horri kontagailuaren kostuaren ehuneko 100 eta instalazioaren kostuaren ehuneko 115 gehituko zaizkio): 910 euro.

50 eta 80 mm arteko diametroa duten kontagailuen hartune eskubidea (hartune eskubidea baino ez da sartzeko eta horri kontagailuaren kostuaren ehuneko 100 eta instalazioaren kostuaren ehuneko 115 gehituko zaizkio): 1.170 euro.

80 mm-tik gorako diametroa duten kontagailuen hartune eskubidea (hartune eskubidea baino ez da sartzeko eta horri kontagailuaren kostuaren ehuneko 100 eta instalazioaren kostuaren ehuneko 115 gehituko zaizkio): 1.560 euro.

Suteen aurkako hartunearen eskubidea: 750 euro.

(gehi kontagailuaren kostuaren ehuneko 100 eta instalazioaren kostuaren ehuneko 115).

6.5. Dagoeneko hartunea daukaten eraikin edo etxebizitzetako horniduraren altak: 160 euro. (kontagailua 15 mm-koa denean; gainerako kasuetan, prezioari kontagailuaren eta hura instalatzearen kostua gehituko zaio).

6.6. Titular aldaketa.

Horniduraren titularra aldatzeagatik 75 euroko tasa kobratuko da.

6.7. Horniduraren titularra horniduraren gaia den higiezinaren jabeen artean aldatzea: 8 euro.

6.8. Bestelako zerbitzuak.

Ur hornidura eta saneamenduarekin zerikusia duen beste ezer izatekotan, eta ez badago tasa honetan jasota, zerbitzuaren kostua eta kudeaketa aintzat hartuta likidatuko da.

V. Sortzapena eta zergaldia

7. artikulua

Zerga gaia den zerbitzua ematen edo udal jarduera egiten hastearekin batera sortzen dira honako kuotak: zerbitzuarenak, kontsumoarenak eta kontagailuak mantendu eta berritzearen ondoriozkoak eta, beraz, tasa ordaintzeko betebeharra ere bai.

Oro har, zerbitzua ematen hasten dela ulertuko da hornidura kontratua formalizatzen denetik aurrera eta kontraturik ezean hornidura hasten denetik aurrera.

Hartune eskubideen, titular aldaketaren eta bestelako zerbitzuen ondoriozko kuotak hartunea baimentzeko, titularra aldatzeko edo dagokion zerbitzua emateko eskatzearekin batera sortzen dira. Eskaerarik ezean, zerbitzua gauzatzearekin batera.

VI. Tasak likidatzea, ordaintzea eta kudeatzea

8. artikulua

8.1. Zerbitzu kuotagatik, kontsumo kuotagatik eta kontagailuak mantendu eta berritzearen ondoriozko kuotagatik kobratu beharreko tasa Kuotak hiru hilean behin kobratuko dira ordainagiri bidez, eta ezin izango dira murriztu.

BEZari dagokionean, indarrean dagoen zerga tasa aplikatuko da, urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Arauak, balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duenak, 7.8.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hiruhilekoa bukatu ondoren kobratuko dira kuotak. Ordaintzera behartuta daudenek hiruhilekoa bukatu ondorengo hilaren 25era arte edo hurrengo egun baliodunera arte ordaindu ahal izango dituzte ordainagiriak borondatezko epean. Hiru kuota jarraian ordaindu ezean, ur hornidura moztu egingo da. Aurkeztu beharreko alta, baja eta aldaketa aitortpenak aurkeztu beharko dituzte subjektu pasiboek udal honetan, tasa behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren datuak eman beharko dituztelarik.

Zein hiruhilekotan eskatzen diren, hiruhileko horretako lehen egunetik aurrera sortuko dute eragina altek.

Zein hiruhilekotan eskatzen diren, hurrengo hiruhilekoko lehen egunetik aurrera sortuko dute eragina bajek.

Zerbitzuan egiten diren alta guztiak banku erakundeen bitartez helbideratu beharko dira.

8.2. Hartune eskubideen, titular aldaketaren eta bestelako zerbitzuen ondoriozko tasa.

Kuota hauek sortzen direnean, hain zuzen ere, kobratuko dira.

BEZari dagokionean, indarrean dagoen zerga tasa aplikatuko da, urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Arauak, balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duenak, 7.8.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

9. artikulua

1) Kontagailua gelditu delako edo gaizki dabilelako ezin bada jakin zein izan den abonatuaren kontsumoa, aurreko hiru urteetako hiruhileko berdinean egin ziren irakurketen batez bestekoa oinarritzat hartuko da fakturazioa kalkulatzeko. Industria erabileretarako edo bestelakoetarako horniduren kasuan, kalkulatu edo haztatuz kontsumoa zehazteko aukera ematen badute, fakturazioa egiteko oinarritzat hura hartuko da.

2) Titularraren instalazioan irregulartasunen bat dagoelako ur ihesa dagoela jakinaraziz gero, tarterik txikieneko tarifa aplikatuko da m³ bakoitzeko, erabiltzaileak egindako kontsumoa gorabehera.

Tarifa hori aplikatzeko, baldintza hauek guztiak bete behar dira:

- Udalari berehala jakinarazi behar zaio.
- Ezkutuko ihesa izan behar da, subjektu pasiboak hodietan edo neurtzeko ekipoetan akatsen bat dagoela alde aurretik ez jakiteko modukoa. Udal langileak begiratu behar du.
- Arduragabekeria ez dela egon egiaztatu behar da; bai ihesa eragin zuten egintzetan, bai ihesa gertatu ondorengo jokoan.
- Instalazioan ihesa eragin zuen haustura edo akatsa konpontzeko, 2 egun izango dira ehie-
nez, ihesa antzeman eta aurkitu zenetik aurrera.

Zerga ordenantza, hiri hondakin solidoak biltzearen, garbigunearen eta ibilgailuak bide publikotik kentzearen tasak arautzen dituen

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Dulantziko Udalak, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituenak, 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, tasak ezarri eta eskatzen ditu ordenantza honetan, zerbitzu publikoak eskaintzeagatik edo ondoko jarduera hauek egiteagatik:

- I. epigrafea. Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta deuseztatzeko zerbitzua.
 - II. Epigrafea. Garbigune zerbitzua.
 - III. epigrafea. Ibilgailuak bide publikotik kentzeko zerbitzua.
- Ordenantza hau Dulantziko udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

2. artikulua

1. Zerga egitea da zerbitzu publikoak ematea edo udalaren eskumeneko administrazio jarduerak gauzatzea, baldin eta subjektu pasiboak badagozkie edo batez ere haiei eragin edo onura ematen badiete, 41/1989 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Administrazio jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragingo dio, edo hari egongo zaio, baldin eta hark eragin badu zuzenean edo zeharka, berak egindakoagatik edo ez egindakoagatik, eta horren ondorioz Dulantziko Udalak ofizioz jarduerak egin edo zerbitzuak eman behar baditu, segurtasun zein osasun arrazoiengatik, herritarrak zerbaitez hornitu behar dituelako, edo hirigintza arloko zein beste edozein arlotako arrazoi bada tarteko.

3. Zerbitzuak emateagatik kobratu beharreko tasak ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.

III. Subjektu pasiboak

3. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzua emateko eskatzen badute edo haren onuraz gozatzen badute edo hark eragiten badie.

2. Etxebizitzen edo lokalen erabiltzaileei onura eman edo eragin egiten dieten zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ezarritako tasak ordaintzeko, ondasun higiezin horien jabeak izango dira zergadunaren ordezkioak, eta haiek ordainarazi ahal izango dizkiete onuradunei kuota, hala badagokio.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

4. artikulua

Ordenantza honek bere epigrafe bakoitzean xedaturikoaren mende egongo da salbuespenak, murrizketak, hobariak eta beste zerga onura batzuk ematea.

V. Zerga oinarria

5. artikulua

Dena delako zerbitzu edo jardueraren kostu erreala edo aurreikusitakoa da zerga oinarria, kontuan hartuta zer zuzeneko gastuk edo zeharkakok osatzen duten zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa; baita zer finantza gastu egon den, higiezinetatik zer amortizatu den, eta zer gastu orokor egin den ere, kontribuzio berezien bidez ordaindu ez direnak.

VI. Kuota

6. artikulua

1. Zerga kuota zehazteko, epigrafe bakoitzak jasoriko tarifetatik, egokitzen dena aplikatuko da, betiere hura aplikatzeko arauen arabera.

VII. Sortzapena eta zergaldia

7. artikulua

Tasa noiz sortzen den:

a) zerbitzua ematen edo jarduera egiten hastearekin batera; nolahi ere, lanari ekin aurretik zenbateko osoa edo zati bat jartzeko eska daiteke.

b) Jarduera edo espedientea abiarazteko eskaera aurkezten denean, zeina ezin izango baita egin edo izapidetu ordaindu beharrekoa ordaindu arte.

VIII. Likidazioa eta diru sarrera

8. artikulua

Dulantziko udal administrazioak egingo ditu kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioak, kasuan kasuko tarifetan jasotako ordainarazpen bakoitzaren arau berezien arabera. Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

IX. Tasen kudeaketa

9. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, dirubilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioaren eta kasuan kasu ezarri beharreko zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta indarreko lege xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.

Azken xedapena

ALHAOn behin betiko argitaratzen denean hasiko da aplikatzen zerga ordenantza hau, eta indarrean jarraituko du harik eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

I. epigrafea. Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta deuseztatzeko udal zerbitzua ematea

I. Ordainarazten den gaia

1. artikulua

Kontzeptu hauengatik ematen diren zerbitzuek eragiten dute ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharra:

a) Etxebizitza, egoitza, laborategi eta industria establezimendu, merkataritza establezimendu eta antzekoetako zaborrak eta hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzea.

b) Berokuntza zentralen ondorioz sortutako zepa eta errautsa bildu, garraiatu eta tratatzea.

c) Udalaren bide publikoetara bota diren edo han utzi diren zaborrak eta hondakinak kendu, garraiatu eta tratatzea.

Hori guztia, bai udalak berak zerbitzua zuzenean kudeatu, bai Arabako Lautadako Kuadrillaren, udal enpresaren baten zein kontratistaren baten bitartez.

II. Subjektu pasiboak

2. artikulua

1. Zaborrak biltzeko zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko tasen subjektu pasiboak dira, zergadunak diren aldetik, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta ordenantza honetan araututako udal zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte eta haien onuraz gozatzen badute edo eragin egiten badiete.

2. Administrazio jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragingo dio, edo hari egongo zaio, baldin eta hark eragin badu zuzenean edo zeharka, berak egindakoagatik edo ez egindakoagatik, eta horren ondorioz udalak ofizioz jarduerak egin edo zerbitzuak eman behar baditu.

3. Lokalen erabiltzaileei onura ematen dieten zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ezarritako tasak ordaintzeko, ondasun horien jabeak izango dira zergadunaren ordezkoiak, eta haiek ordainarazi ahal izango dizkiete onuradunei kuotak, hala badagokio.

3. artikulua

Zaborrak biltzeko zerbitzua ematea Udalarentzat derrigorrezkoa denean, tasa sortuko da nahiz eta interesa dutenek zerbitzu horien erabilerarik sorrarazten ez duten. Gainerakoek borondatezko izaera izango dute eta aldeak eskatuta emango dira.

4. artikulua

Derrigorrean eman beharko zaie hauei zaborra biltzeko zerbitzua: familien etxebizitza, ostatu, hotel, elizaren etxe, klinika, ikastetxe, egoitza, bulego, biltegi eta gastronomia elkarteei; baita industria eta merkataritza jardueren, jarduera profesionalen, eta zerbitzuen jardueren kokagune diren edo izan daitezkeen lokalei ere. Zaborrak biltzeko udal zerbitzua higiezinaren kokaleku den zonan dagoenean eta funtzionatzen ari denean joko da emantzat zerbitzua. Higiezinan inor bizi ez bada ere, berdin ordaindu beharko da tasa.

Borondatezkoa da bildu, garraiatu, bota eta deuseztatzea fabrika eta lantegien industria prozesuetan eta lanketan sortutako hondakin solidoak; obra eta eraispenetan pilatutako hondakin eta lurrak; ospitale, klinika eta osasun zentroen detrituak, eta material kutsatuak edo arriskutsuak.

III. Zerga oinarria eta salbuespenak

5. artikulua

Zerga oinarria ordenantza honetako xedapen nagusietako 5. artikuluan jasotzen dena izango da.

6. artikulua

Tasa honetatik salbuetsita daude Dulantziko Udalarenak diren higiezinak eta bertako administrazio batzarrenak, beren helburuak betetzeko erabiltzen badira. Horien artean ez dira sartzen etxebizitza edo negozio lokalen errenta-hartzaileak, horien jabetza udalarena edo administrazio batzarrena baldin bada; ezta ere, udal ondasunen emakidadunak eta lagapen-hartzaileak ere.

2020ko bigarren hiruhilekoko ordainketatik salbuetsita daude COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10.artikuluaren 1. ataleko salbuespenen barruan ez dauden dendak, ostalaritza-establezimenduak eta zerbitzuak, larrialdi-zerbitzua besterik ez duten establezimenduak izan ezik. Horrez gain, ostalaritza-establezimenduak 2020ko laugarren hiruhilekoko ordainketatik ere salbuetsita egongo dira.

IV. Zerga kuota

7. artikulua

Tasa honi loturiko zergadunek ondoko tarifa hauek ordainduko dituzte:

TARIFA	HIGIEZINEKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA	HIRUHILEKO KUOTA
1	Etxebizitzak	13,79 euro
2	Gehienez 50 m ² dituzten taberna eta kafetegiak eta gastronomia elkarreak	38,14 euro
3	50 m ² baino gehiago dituzten tabernak eta kafetegiak	63,53 euro
4	Jatetxeak eta jantoki kolektiboak	131,70 euro
5	Ostatuak, hotelak, aterpetxeak, landetxeak eta egoitzak	131,70 euro
6	Txokoak	10,21 euro
7	Gehienez 50 m ² dituzten janari dendak	38,14 euro
8	50 m ² baino gehiago dituzten janari dendak	99,48 euro
9	Zerbitzuguneak, gasolina hornitzaileak	131,70 euro
10	Klinikak, egoitza geriatrikoak, anbulatorioak	131,70 euro
11	Elizak eta elizaren beste etxe batzuk	38,14 euro
12	Merkataritzako beste establezimendu batzuk edo establezimendu profesionalak	38,14 euro
13	Banku, aurrezki kutxa eta aseguru etxeak	95,29 euro
14	Nekazaritza biltegiak eta abeltzaintzako instalazioak	38,14 euro
15	Gehienez 1000 m ² dituzten lantegi, biltegi eta industriak	38,14 euro
17	1000 m ² baino gehiago dituzten lantegi, biltegi eta industriak	63,53 euro
18	Merkataritza jarduerarik ez duten lonjak eta beste erabilera batzuk	8,64 euro

Higiezin berean erabilera bat baino gehiago egiten bada, erabilerarik garestienaren tarifa aplikatuko da.

V. Sortzapena eta zergaldia

8. artikulua

1. Tasaren zerga gaia den zerbitzua edo udal jarduera hasten denean sortzen da tasa, bai eta hori ordaintzeko beharra ere. Ondorio horretarako, higiezinaren kokaleku diren kaleetan edo lekuetan dagoenean etxebizitzetako zaborrak biltzeko udal zerbitzua eta hura funtzionatzen ari denean joko da emantzat zerbitzua.

2. Aurreko puntuan jasorikoa gorabehera, zerbitzuak borondatezkoak badira eta aldeak eskatzen baditu, zerbitzua emateko baimena ematen denean sortuko da zerga ordaindu beharra.

VI. Tasen likidazioa, ordainketa eta kudeaketa

9. artikulua

Hiru hilabetean behin ordaindu beharko dira zerbitzua jasotzeagatiko kuotak, ezin daitezke murriztu, eta ordainagiriaren bidez kobratuko dira. Zerbitzua erabili edo jasotzen den hiruhileko lehenengo egunean sortuko da tasa, epigrafe honetako 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

10. artikulua

Aurkeztu beharreko alta, baja eta aldaketa aitortpenak aurkeztu beharko dituzte subjektu pasiboek udal honetan, tasa hau behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren datuak emanaz.

Zein hiruhilekotan eskatzen diren, hiruhileko horretako lehen egunetik aurrera sortuko dute eragina altek.

Zein hiruhilekotan eskatzen diren, hurrengo hiruhilekoko lehen egunetik aurrera sortuko dute eragina bajek.

Zerbitzuan egiten diren alta guztiak banku erakundearen bitartez helbideratu beharko dira.

11. artikulua

Hiruhilekoa bukatu ondoren kobratuko dira kuotak.

Ordaintzera behartuta daudenek hiruhilekoa bukatu eta hurrengo hilabetearen 25a edo haren ondorengo lehenengo egun balioduna baino lehenago ordaindu beharko dituzte ordainagiriak borondatezko epean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Alegria-Dulantzin, 2021eko urtarrilaren 29an

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA